

www.ahotsak.com: Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea



Asier **Sarasua Aranberri***

Proiektu honen helburu nagusia da Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak biltzea. Gure herrietako adineko hitzunei grabazioak egiten zaizkie euren euskara eta bizipenak jasotzeko, dena euskaraz. Grabazio guztiak katalogatu eta landu egiten dira, zinta bakoitzetik gaika antolatutako pasarteak lortzeko eta Interneten sailkatuta erakusteko. Bidea 2003. urtean hasi genuen Deba eskualdean, eta harrezkero etengabe hazi da Euskal Herri mailako proiektu bihurtzeraino. Ondorengo orrialdeetan egitasmo honen alderdi teknikoak laburbilduko ditugu.

Giltza-Hitzak: Ahotsak. Euskalkia. Hizkerak. Ahozko ondarea. Ahozkotasuna. Ondare inmateriala. Mediateka. Internet.

El objetivo principal de este proyecto es reunir el patrimonio oral y las hablas populares del País Vasco. Se realizan grabaciones a los hablantes de mayor edad de nuestros pueblos para recoger su euskera y sus vivencias, todo ello en euskera. Todas las grabaciones se catalogan y se trabajan para conseguir fragmentos clasificados por temas en cada cinta y ofrecerlos en Internet. Iniciamos este camino en 2003 en la zona de Deba y desde entonces no ha parado de crecer hasta que el proyecto ha llegado a abarcar la totalidad del País Vasco. En estas páginas resumiremos los aspectos técnicos de este proyecto.

Palabras Clave: Voces. Dialecto del euskara. Hablas. Patrimonio oral. Oralidad. Patrimonio inmaterial. Mediateka. Internet.

L'objectif premier de ce projet est de rassembler le patrimoine oral et les dialectes du Pays Basque. Des enregistrements sont réalisés auprès des personnes les plus âgées des villages, pour connaître leur euskara et leur expérience de vie, le tout en euskara. Tous les enregistrements sont catalogués et travaillés, afin de les classer par thèmes et de les mettre sur Internet. Un projet que nous avons amorcé en 2003, dans la région du Deba et qui n'a cessé de se développer depuis, couvrant aujourd'hui la totalité du Pays Basque. Nous en résumons ici les aspects techniques.

Mots Clé : Voix. Dialecte de l'euskara. Façons de parler. Patrimoine oral. Oralité. Patrimoine immatériel. Médiathèque. Internet.

* Badihardugu Euskara Elkartea. Markeskoa Jauregia, Otaola Hiribidea. 20600 Eibar. ahotsak@ahotsak.com.

SARRERA

Ahotsak egitasmoa 2003. urtean jaio zen. Sasoi hartan, eta Badihardugu Euskara Elkarteari¹ esker, antzeko proiektuetan murgilduta geunden zenbait lagun elkartu ginen, denak ere Deba Ibarrekoak (Eibar, Bergara, Soraluze...). Guztiok genbiltzan antzeko proiektuak burutzen, herri hizkerak eta ahozko ondarea biltzen. Berehala konturatu ginen denok behar eta premia beretsuak genituela eta alperriko lana egiten ari ginela, bakoitza bere herrian dena hutsetik sortuz: galdetegiak, metodologia, datu-baseak... Ordura arteko esperientzia jaso (batez ere, *Eibartarren Ahotan*² proiektuan egindako lana) eta *Ahotsak*³ proiektua jaio zen. Helburua zen, herri batean egindako lana beste guztietan erabili ahal izatea, eta guztion artean Deba Ibarreko ahozko ondarea biltzea (herri hizkerak zein memoria historikoa).

Harrezkero, eta Deba Ibarreko udal gehienek laguntzari esker, 600 hitzun ingururen ahotsa eta esperientzia jaso dugu Deba Ibar osoan zehar. Grabazioak bideoz egiten dira eta, gehienbat, 75-80 urte inguruko hitzunei egiten zaizkie elkarrizketak. Izan ere, gerra zibila mugarri garrantzitsua izan da gure historian, eta gerra aurreko Euskal Herria ezagutu zutenen ahotsa bildu nahi dugu, betirako galdu aurretik. Azken 60-70 urteotan izugarri aldatu da Europako eta Euskal Herriko itxura eta bizimodua, eta horrekin batera baita euskaldunon bizitza ere. Garai hartako datu historikoak artxibo eta agrietan ditugu, baina orduko bizimodua, sentimenduak, ohiturak eta nahiak gizon-emakume horien ahotan besterik ez ditugu aurkituko. Sasoi hura ezagutu zuten gazteek 80-90 urte inguru dituzte gaur egun, eta beraiei testigantzak batzeko ezin dugu gehiegi itxaron. Elkarrizketatzen ditugun lagunak, gainera, protagonista izan ziren gure herriko kulturen, bizimoduan, politikan eta kirolean; lehenengo pertsona egiten digute hitz. Eurek orain eskaini dezaketen ahozko informazio hori beste inon ez dugu batuko. Kultura materiala ez da sortzailearekin batera desagertzen; hitza, ordea, igorlearekin batera hiltzen da. Bilketa proiektu honen bitartez, ahozkotasunean jaio eta bizi izan diren azkenengo hitzunen hitza jaso nahi dugu.



Candido Eguren eta
Antonio Sarasua,
Eibar. 2000. urtea.
Irudia: Asier Sarasua.

1. Badihardugu Elkartea: <http://www.badihardugu.com>.

2. Eibartarren Ahotan: http://www.egoibarra.com/Eibar/Eibartarren_Ahotan.

3. Euskal Herriko Ahotsak: <http://www.ahotsak.com>.

Hasiera batean Badihardugu Euskara Elkartea hasi zen proiektu honetan, baina hasiera-hasieratik elkarlana bultzatu nahi izan zen, beste elkarte eta udalexe batzuk ere proiektuan inplikatur. Horrela, azken urteotan Deba Ibarreko udalerri guztiak gehitu dira egitasmora: Bergara, Antzuola, Mallabi, Soraluze, Elgeta (2003an), Arrasate (AED Elkartearekin elkarlanean), Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga (2004an), Aramaio eta Deba (2005. urtean), Ermua eta Elgoibar (2006-2007) eta Oñati, Mutriku, Mendaro eta Eibar (2008an).

Eskualde mailako proiektu izan zena, gainera, beste herri eta lurralde batzuetara ere zabaldu da 2007tik aurrera, eta harrezkero *Euskal Herriko Ahotsak* ize-na hartu du. Goian aipatutako udalerriez gain, beste 20 elkarte, udalexe eta ikerlari ere gehitu dira egitasmora⁴. Herri batzuetan Badihardugu elkarteak egiten du lanaren zatirik handiena; beste batzuetan, aldiz, oinarri metodologikoak, baliabideak eta azpiegitura teknikoak uzten ditu, eta herriko elkarteak da lanaz ardura-tzen dena lankidetzaz hitzarmen bati esker. Horixe da, besteak beste, Oiarzunen (Ttur-ttur Euskaltzaleen Bilgunearekin), Ermuan (Euskal Birusarekin) edo Arbizon (Zizkerte Kultur taldearekin) egindakoa.

Azken bi urteotan Gipuzkoa izan da erronka nagusia, orain arte lurralde hori izan delako horrelako bilketa-lan gutxien izan dituen herrialdea. Hala ere, beste lurraldeetan ere hasi gara lanean eta, udalekin eta elkarteekin izenpetutako lankidetzaz hitzarmenei esker, une honetan 90 herri baino gehiagotako materiala daukagu jasota, 1.400 herritar baino gehiagoren ahotsa. Hemendik aurrerako lehentasuna, orain arte jasotakoa lantzen jarraitzea eta erakustea izango da, eta material gutxi daukaten eskualdeetan bilketa lanak indartzea.



Encarna Ibabe eta Maximo Lezeta, Eskoriatza. 2004. urtea. Irudia: Deba Ibarreko Ahotsak.

4. <http://www.ahotsak.com/proiektua>.

Hauxe da 2008ko uztaillean www.ahotsak.com atarian aurki daitekeen materiala:

- Herriak: 91
- Hizlariak: 1.410
- Zintak: 1.822
- Pasarteak: 12.119
- Transkribatutakoak: 2.691
- Ikusentzunezko fitxategiak: 3.639

1. METODOLOGIA

1.1. Grabazioak egin

Proiektu honen oinarri-oinarrizko materiala hiztunak eta grabazioak dira eta horietan dira ongien zaindu behar direnak. Lekukoak aukeratzeko orduan ondorengo irizpideak jarraitzen dira: herrian bertan sortuak izatea, ahal dela bizi guztia bertan igarotakoak, eta herriko hizkera menperatzen dutenak. Horrez gainera, burua argi izatea eta ongi ahoskatzea komeni izaten da, noski. Laginketa egiteko orduan, herri bakoitzean elkarrizketatuen ezaugarrien artean oreka behar izaten da aukeraketa soziolinguistiko zuzena egiteko: sexua, auzoa, adina, lanbideak, kaletar/baserritar oreka...

Elkarrizketak egiteko orduan, lehenengo urratsa hizlariaren profil txiki bat lortzea izaten da (biografia, zaletasunak, lanbideak...), eta horrekin batera galdetegia atondu behar izaten da. Elkarrizketa egiteko toki lasai bat adostu (lekukoaren etxean bertan, gehienetan) eta grabazioa egiten da, bideokamera, mikrofonoa, tripodea eta fokoa erabiliz.

Gure esperientziaren arabera, elkarrizketak ezin dira galdera-erantzun hutsak izan. Pertsona nagusiak dira eta batzuetan gure intereseko gaietatik urruntzen diren arren, "libre" hitz egiten utzi behar zaie eta, ahal denean, gutxinaka, harira itzultzen ahalegindu. Mekanika horrek asko luza ditzake elkarrizketak, baina horrela behar du izan, bestela ez direlako eroso sentitzen. Eta garrantzitsuena horixe da: hizlaria eroso egotea, aurrean daukan kamera ahaztea eta lasai-lasai egitea berba. Eta neurri handi batean lortzen dela esan behar da. Normalean hiztunek ez dute bidez grabatzeko trabarik ipintzen eta, lehenengo minutuak pasa ondoren, jarrera irekia azaltzen dute.



Akelino Martinez, Hondarribia. 2007. urtea. Irudia: Ainara Maia.

Metodologia eta teknika berbera erabili arren, elkarrizketa guztietan ez da lan-eskema berbera jarraitzen. Garrantzitsua da elkarrizketak ondo prestatzea: pertsona bakoitzari zer galdetu behar zaion finkatzea, nola galdetu, lehentasuna edukiko dituzten gaiak zehaztea, eta abar. Dena dela, bide osoan zehar jarrera ireki eta malgua izaten ahalegindu behar da. Galdetegia ez da aldaezina izan behar. Agertuko diren gai berri eta interesgarriak, hasiera batean aurreikusita ez egon arren, galdetegira gehitzea komenigarria izaten da. Gainera, sekula ezin da jakin hitzun batek noiz kontatuko dituen gauza interesgarrienak. Badira gerra aurreko politikaz asko dakiten txirrindulariak, monagilo izandako komunistak, orfeoian abesten zuten zinegotziak...

Gehienez 90-120 minutuko grabaketak egiten dira, lekukoak neka ez daitezzen. Kontuan izan behar da eurekin egindako ordu guztiak ez direla grabatzen eta, horrez gain, grabazio ordu guztiak ere ez direla gero erabiltzeko modukoak izaten.

Elkarrizketak banaka egiten dira gehienetan (hobeto egiten dira eta haria errazago jarraitzen da), baina noizean behin tertulia modukoak ere antolatzen dira. Tertulia horiek lagun-arteko hizkuntza eta hitanoa jasotzen laguntzen dute; gainera, elkarren arteko tirabiran gai eta kontu gehiago agertzen dira. Batzuetan argazki zaharrak erabiltzea ere komenigarria izaten da, elkarrizketatuen memoria pizteko.

1.2. Grabazio zaharrak jaso

Elkarrizketak egitearekin batera, han eta hemen, Euskal Herri guztian zehar sakabanatuta dauden zinta zaharrak ere berreskuratzen dira. Izan ere, Euskal Herrian dozenaka azterketa eta libururako egin izan dira grabazio dialektologi-



Beasaingo Ugartemendia auzoko Joan Bautista Etxeberria, Bitoriano Apalategi eta Jose Etxeberria. 2005. urtea. Irudia: Asier Sarasua.

koak azken 25 urteotan, baina gehienetan, behin argitalpena kaleratu ondoren, grabazioak ez dira erabiltzen eta bazterren batean zokoratuta geratzen dira. Garrantzitsua zen orain arte egin den lan eta material guzti hori jaso eta argitara ateratzea, eta ahalegin berezia egin dugu horretan, ahozko ondarea biltzeko lanetan jardun duten bitartekoekin kontaktatuz: udaletxeak, euskara elkarteak, ikastetxeak, ikerlariak... Bide horretatik ere ehunka zinta eta minidisc jaso dira.

Zinta berrien kasuan materialaren egoera ona da, baina zaharrenen kasuan grabazioak zinta analogikoetan egon ohi dira, eta premia-premiazkoa da lehenbailehen kopiatzea eta euskarri digitalera pasatzea, ez daitezen galdu. Kasurik gehienetan, gainera, soinua garbitu egiten da. Audioa bakarrik duten grabazioak CDetan gordetzen dira; bideoen kasuan, DVDetan. Kopiak egin ondoren, originaalak (eta kopia bat) jabeari itzultzen zaizkio.

Adibide bat jartzearen, egitasmo honetan bildu dira, esate baterako, Bergarako lanbide zaharren inguruko liburuetarako egindako grabazioak, Zarauzko euskararen azterketa egiteko egindako grabazioak, Eskoriatzako argazki zaharrak dokumentatzeko egindako grabazioak, Ordiziako euskara aztertzen duen libururako egindako grabazioak, Eibarko mendi-toponimia proiekturako egindako grabazioak, Arrasateko kantuak biltzeko proiektukoak, eta abar.



Dimas Ormaetxea, Eibar. Eibarko mendi-toponimia jasotzeko proiekturako grabazioa egiten. 2002. urtea. Irudia: Asier Sarasua.

1.3. Datu-basea

Herri bateko ahozko ondarea jasotzeko orduan grabazioak zuzen egitearen garrantzia begibistakoa da baina, gure ustez, horrek bezain garrantzi handia dauka ondorengo sailkapenak. Horrelako proiektu batean jasotzen eta sortzen den material kopurua oso handia da eta informazioa egoki ustiatzeko nahitaezkoa da batutakoa modu sistematikoan sailkatzea eta gordetzea, bai jasotako informazioa ondo kudeatzeko eta erraz bilatu ahal izateko, zein ondorengo urteotan izan daitezkeen hedapen proiektu berriak errazteko eta transkripzioak zentzuz egiteko (grabatzen den guztiaren interesa ez da berbera, eta ez du merezi zintak oso-osorik papereratzea).

Proiektuaren sorreran Access aplikazioan sortutako datu-basea erabiltzen genuen. Gaur egun, zuzenean webgunean bertan kargatzen eta kudeatzen dugun MySQL datu-base bat erabiltzen dugu. Guztira 25 taula inguru biltzen ditu bere baitan, baina sei dira nagusiak:

- Zintaren datuen taula: noiz eta non egin den grabazioa, nork, iraupena, ohar teknikoak...
- Lekukoaren datuen taula: jaioteguna, biografia laburra, helbidea, argazkia...
- Gaien taula: gaien kodeak jasotzen dituen taula.
- Herrien taula: herri bakoitzaren datuak, eskualdea, lurraldea, hizkera, koordinatu geografikoak...

- Proiektuen taula: egitasmo honen barruan dagoen proiektu jakin bakoitzaren inguruko informazioa.
- Kodifikazioen taula: elkarrizketa bakoitzaren minutuz minutuko laburpena: minutu bakoitzean hitzunak zeri buruz hitz egin duen kode batzuen bidez zehazten da (hurrengo puntuan azalpen gehiago).



www.ahotsak.com.

1.4. Grabazioak landu: kodifikazioak

Elkarrizketa bat egiten denean hizlari bakoitzaren jarduna zinta batean (edo zinta batzuetan) dugu. Material hori, baina, bere horretan ezin dugu erraz erabili eta hitzun bakoitzak esandakoaren laburpen zehatza egitea komeni zaigu, minutuz minutu. Hori dela eta, zinta pasartetan banatzen da eta pasarte bakoitzari ondorengo informazioa erantzen zaio, besteak beste: zintaren kodea, pasartearen kodea, denbora-kodea, pasartearen iraupena, gaia, pasartearen izenburua, pasartearen interesa eta laburpena. Hasiera batean lan astuna izan arren, ahoko dokumentuaren erabilera asko errazten du hurrengo urratsetan, bai transkripzioak egiteko orduan, bai edozein bilaketa egiteko, edo hedapenerako. Kodifikazio horren ondorioz, azterketarako unitatea ez da zinta, ondo definitutako 3-4 minutuko pasarte bat baizik, bere izenburu, iraupen, gai, eta transkripzio jakinarekin. Lana amaitzean, zinta bakoitzetik 30-40 pasarte inguru lortzen dira (hiztunaren arabera gehiago edo gutxiago izan daitezke). Horietako batzuk argitaratzeko modukoak izango dira; beste hainbat ez.

Datu-base horrekin, edozein gai zein zintatan eta zinta horren zenbagarren minutuan dagoen jakin dezakegu. Kontuan izan, gainera, datu-base hau irekia dela. Hau da, prest geratzen da datozen urteotan egin daitezkeen beste grabazio batzuk bertan txertatzeko eta ordura artekoarekin bateratzeko.

1.5. Pasarte interesgarrien edizioa

Behin zintak kodifikatu ondoren, jasotako informazioa prest dugu nahi dugun bezala erabiltzeko. Pasarteak eta gaiak identifikatuta ditugu, pasarterik interesgarrienak ere zehaztuta, eta abar. Internetek aukera ematen digu bildutako material guztia gizarteratzeko (bideoa; soinua; transkripzioak; argazkiak); hala ere, gure helburua ez da zinta osoak –hasieratik amaierara– sarean zintzilikatzea. Hori baino, zinta bakoitzeko pasarte interesgarrienak eskaintzea egokiagoa dela iruditzen zaigu, gaika eta herrika antolatuta. Pasarte interesgarrien horiek izaten dira lehendabizi editatzen direnak. Batetik, transkribatu egiten dira; bestetik, ikusentzunezko artxiboa editatzen da. Bideoen kasuan, pasarte bakoitza hiru formatutan jasotzen da: jatorrizko AVI fitxategia, AVI editatua, eta Flash fitxategia (FLV). Soinu-artxiboetan, MP3 formatua erabiltzen da. Webgunean Flash erreproduktore bidez erakusten dira, bai soinu-artxiboak, bai bideo-artxiboak.

1.6. Informazioa www.ahotsak.com webgunean jarri

Azken urratsa aurreko informazio guztia Interneten jartzea da. Jasotako guzti-guztia ez dago Interneten, noski. Batetik, material guztia ez dagoelako landuta, eta bestetik, jasotako guztia ez delako argitaratzeko modukoa.

Webgunean dagoen informazioa arakatzeko, hiru modutan dago antolatuta materiala: herrika, proiektuka eta gaika. Bilaketa-modua edozein delarik ere, azkenean hizlari baten fitxara helduko gara, non bere datuak (izen-abizenak, jaio-eguna, biografia laburra, argazkia...) eta berari jasotako informazioa (zintak eta pasarteak) izango ditugun. Behin pasarte bat aukeratuta, hizlariak esandakoaren laburpena eta azalpenak izango ditugu eta pasarte hori entzuteko edo ikusteko aukera ere izango dugu.



ahotsak.com Euskal Herriko hizkerak eta ahazko ondarea

Home | Gaiak | Herriak | Proiektuak | Gaiak | Hizlariak | Pasarteak | Zintak | Pasarteak | Zintak

Herriak: [Garaia](#) | [Berapera](#) | [Hizlariak: Natalio Juaristi Aranburu](#)

Natalio Juaristi Aranburu

(Berapera, 1912/11/30)

Biografia

Zubietan jaio zen 1912ko azararen 30ean. Aita, Abdon Juaristi. Ama, irude jaio zen Madrilera eta bitartean Natalio Bonbuletan hasi zuten. Oraindik umoa zela, abarretatik egiten lan egin zuen. Geroa, Nafarroan hasi zen lanean.

Zintak

#	Kodexa	Era	Kopurak	Fitxategia
1.	BER-138	2003	60	Deba Eusuzdelo ahotsak - Berapera
2.	BER-139	2003	60	Deba Eusuzdelo ahotsak - Berapera
3.	BER-140	2003	60	Deba Eusuzdelo ahotsak - Berapera
4.	BER-141	2003	20	Deba Eusuzdelo ahotsak - Berapera
5.	BER-142	2003	60	Deba Eusuzdelo ahotsak - Berapera

Pasarteak

#	Fitxategia
1.	Biografia
2.	Zubietan jaioa

Hizlari baten fitxa, ahotsak.com.

Zubieta kalea



Hizlaria: [Natalio Juaristi Aranburu](#)
Herria: [Beratzis](#)
Elkarrikalatzalea(K): [Itziar Alberdi](#)
Data: 2003/11/24
Iraupena: 01:15
Erref: 869-136/002

[Latu bideoa \(wmv\)](#) | [Partatu orria](#) | [Txartatu](#)

Laguntza: Zubieta kalea zelakoa zen. Palazioa.

Gela(K):

- [Gizarte](#) > [Herri antolaketak](#) > [Erakundeak eta Asperturak](#)
- [Gizarte](#) > [Herri antolaketak](#) > [Eskola, plaza...](#)

- Ete zelan gogoratzen duzu kalea? Dendak zekazen...?

- Bai.

- Dendak bazoen?

- Bai, dendak bai. Dendak bazoen. Oritxe be badate, baina...

- Adu aldatu da gero dundela eta gero zutan kale hori?

- Ez da adu aldatu, zailak izanar etxetik zeren, zeren. [Euzen] hata bestiar alant pagante-pagante dardak etia.

- Eta heri eguztan palazioa edo bazekazuen?

- Palazioa? Hantxe, bestelakidan Unzetanekus esaten zotzena, zelan, zubia pasau, badakizu? Zubia pasau ta etxe handi haura? Haura da Palacio de Unceta.

- Eta urtean zelan izutzen zindien palazioa?

Natalio Juaristi Aranburu
(Beratzis, 1912/11/30)



Zubieta kalean jai zen 1912ko azaroaren 30ean. Aita, Abdon Juaristi. Ama, Irudia Joan zen Rucholera eta lotutakoan Natalio Rucholera hazi zuten. Oritxide uneko zela, abarrikat egiñ lan oin zuen. Geroa, hartatzenaen hasi zen lanean.

Pasarte baten fitxa, ahotsak.com.

www.ahotsak.com ataria sortzeko software libreko tresnak erabili ditugu: datu-baserako MySQL, eta ataria sortzeko eta kudeatzeko Zope aplikazioa. Doako aplikazioak eta elkarlanean garatzen diren sistemak. Izan ere, gure proiektua ere elkarlanean burutu nahi dugu, jendearen partehartzea bultzatuz, eta horretara bideratu dugu webgunea: egiten den lan guztiaren berri ematen dugu, partehartzeko bideak ematen ditugu, transkripzioak egiteko aukera dago, eta informazio guztia erabiltzaileen esku dago. Aurtengo erronka handiena APLa garatzea izango da, Ahotsak.com atarian dagoen material guztia, erraz-erraz, beste edozein webgune edo ataritan txertatu ahal izan dadin, informazioa eta esperientzia hedatuz eta Euskal Herri osora zabalduz.



Gregorio Telleria eta Mari Cruz Gaintza, Beasaingo Abarizketa baserria. 2005. urtea. Irudia: Aintzane Agirrebeña.

2. PROIEKTUAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Ondorengo hauek dira, gure ustez, proiektu honek dituen ezaugarri azpimarragarrienak:

- www.ahotsak.com webgunea publikoa da, nahi duenarentzat eskuragarri dago eta material guztia online dago, edonoren esku.
- Proiektu irekia da eta interesa duen orok parte har dezake.
- Era guztietako hartzailleak izan ditzake: ikerlariak, ikasleak, irakasleak...
- Hainbat ikerlari eta proiektu biltzen ditu; elkarlanean gauzatutako proiektua da.
- Metodologia sistematikoa eta zehatza jarraitzen da.
- Informazioa herrika, gaika eta proiektuka antolatuta dago.
- Sortzez eskualde mailako proiektua izan arren, Euskal Herri osoko datuak biltzea du helburu.
- Proiektuaren edukiak etengabe eguneratzen dira. Izan ere, Ahotsak.com ataria da gure lanerako datu-basea. Jaso eta lantzen dugun informazioa zuzenean Interneten jartzen da.
- Ataria software librearekin dago eginda eta lehentasuna interaktibitatea eta eduki trukea bultzatzea denez, helburu horiei makurtutako diseinua da garatzen ari dena.
- Euskararen sustapenean, garapenean eta normalizazioan eragina izan dezake. Gero eta ugariagoak dira Euskal Herri osoan zehar tokian-tokiko hizkerak jasotzeko ahalegin eta lanak. Garbi dago gizartean eta erakundetan ere handia dela herri hizkerak jasotzeko gogoia. Bide horretan bere harritxoa jarri nahi du egitasmo honek.